

Getxo >MEETING<



Martxoak 31 **NETWORKING-a: SEKTOREAK HIBRIDATZEN.**

Baieztatuta: Jendea ezagutzeari esker ideiak ugaritzen dira.

Indartsu itzuli dira ekitaldi profesionalak, eta mentalki prestatu behar gara horretarako. Hori dela eta, aurreko saioko hiru alderdi bildu ditugu, sarea sortzeko lagungarri izango zaizkizulakoan. Zeintzuk diren jakin nahi al duzu?

1. Pertsona bat ezagutzen duzunean, ez duzu soilik pertsona hori ezagutzen. Bere kontaktuen sare osoa eta zurea uztartzea modukoa da. Horrenbestez, teknikoki zure aurrean duzun pertsonak zure jarduerarekin lotura askorik ez duen zerbaitetan badihardu ere, agian pertsona horrek zure enpresa gomendatu diezaioke bere gertuko inguruko baten bati. Horregatik ez duzu inoiz profesionalen artean konektatzeko aukera gutxietsi behar. Aproba egin eta zureaz oso bestelakoa den sektoreko pertsona batekin lan egiten duzula imajinatu, eta pentsatu beste enpresa batek bi profil horiek osatu ahalko litzuzkeela, aparteko zerbait sortze aldera.
2. Networking-eko saio baten aurretik, zure diskurtsoa eguneratu. Kongresu edo jardunaldi batera bazoaz eta uste baldin baduzu jendea aurkituko duzula bertan, lagungarri izango zaizu denbora hartzea eta honako kontu hauei buruz pentsatzea: Zer egiten nabil azkenaldian? Zer gustatzen zait gehien nire lanean? Zeintzuk dira egin ohi dizkidaten galderak? Informazio guzti hori gogoan izatea lagungarri izango zaizu honako galdera hauek

egiten dizkizutenerako: Zertan aritzen da zure enpresa? Ondo dago diskurtsoa entseatzea, baina are garrantzitsuagoa da aurrean duzunari egokitzea. Hori dela eta, ondo dator beste pertsonak lehenago hitz egitea.

3. Sarea sortzen laguntzen dituzten alderdiei buruz hausnartuko bagenu, partekatzea, konektatzea eta ekarpenak egitea izango genituzke gogoan. Partekatzea, egiten duzun hori azaltzeko aukerak ezin direlako galdu. Konektatzea, beste pertsona batzuei zubiak sortzen laguntzen baldin badiezu, agian zure zintzotasuna baloratuko dutelako eta errazagoa izango zaielako zutaz fidatzea. Eta ekarpena egitea, garrantzitsua baita besteei entzutea, eskaini ahal dizutena ezagutzea, eta beraiek behar dutenaren gaineko konponbideak eskaintzea. Halakorik behar izatekotan.

Zer deritzozu? Uste duzu emandako aholkuak lagungarriak izango direla zure kontaktuen sarea handitzeko?